



**ERREPIDEZ ETA TRENBIDEZ SALEROSGAI ARRISKUTSUAK GARRAIATZEAK DAKARREN  
ARRISKUA DELA ETA SOR DAITEZKEEN LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL  
AUTONOMIA ERKIDEGOKO LARRIALDI PLAN BEREZIAREN ALDAKETAK**

Errepideez eta Trenbideez Salerosgai Arriskutsuak Garraiatzeak Dakarren Arriskua dela-eta Sor Daitezkeen Larrialdiei Aurre Egiteko Plan Berezia, Gobernu Kontseiluaren 2001eko uztailaren 30eko Erabakiaren bidez onartutakoa, honela aldatu da:

**Lehenengoa.** 1. ataleko (Planaren helburua) 1.1 puntuan (Lege esparrua), Estatuko legediari buruzko A) hizkian, azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

*“734/2019 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, zeinaren bidez babes zibileko plangintzaren oinarritzko jarraibideak eta babes zibileko Estatuko planak aldatzen diren, larrialdiak gertatzen direnean desgaitasuna duten pertsoneri eta egoera bereziki ahulean dauden taldeei eskaintzen zaien arreta hobetzeko xedez”.*

**Bigarrena.** 4. ataleko (Planaren egitura eta antolakuntza) 4.1 puntuan (Zuzendaria), j) hizkia aldatu da eta honela idatzi da:

*“j) Larrialdiak dirauen bitartean, hedabide sozialen bitartez zein Planaren Zuzendaritzak eskura dituen baliabideen bitartez, herritarrei emango zaien informazioa zehaztea eta koordinatzea; informazio hori desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izango dela bermatzeko”.*

**Hirugarrena.** 4. ataleko (Planaren egitura eta antolakuntza) 4.4 puntuan (Informazio-kabinetea), e) hizkia aldatu da eta honela idatzi da:

*“e) Kalteak izan dituzten herritarren senideei informazio pertsonala ematea. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.*

Beste hizki bat gehitu da, f), honela idatzita:



*“Informazioa, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izan dadin, formatu egokien bidez eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela bermatzea”.*

**Laugarrena.** 4.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 4.7.1 puntuan, b) hizkia aldatu da eta honela idatzi da:

*“b) Beste taldeekin lankidetzan aritzea, herritarrek babesteko neurriak hartzeko garaian, eta desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboentzako asistentzia egokia bermatzea”.*

**Bosgarrena.** 4.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 4.7.2 puntuan (Osasun-taldea) b bis) hizkia gehitu da, honela idatzita:

*“b bis) Desgaitasuna duten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.*

**Seigarrena.** 4.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 4.7.3 puntuan (Segurtasun-taldea):

Beste hizki bat gehitu da, a bis), honela idatzita:

*“a bis) Desgaitasuna duten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.*

i) hizkia aldatu da eta honela idatzi da:

*“Herritarrei oharrak eta informazioa helarazten laguntzea eta, aldi berean, informazioa, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izan dadin, formatu egokien eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela ziurtatzea”.*

**Zazpigarrena.** 4.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 4.7.4 puntuan (Logistikako taldea) e) hizkia gehitu da eta honela idatzi da:

*“e) Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideen mobilizazioa eta jarduera kudeatzea, eta horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela”.*



*bermatzea, irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoak kontuan hartuta”*

**Zortzigarrena.** 5. ataleko (Jarduteko era) 5.3 puntuan (Ekintzak):

5.3.2 atalean (Populazioa babestea) azken paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

*“Neurri horiek alderdi espezifikoak kontuan hartuko dituzte, desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen asistentzia eta segurtasuna bermatzeko”.*

5.3.3 atalean (Populazioari informazioa ematea) lehen paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

*“Plan honek jorratzen duen arriskuari buruz egiten diren dibulgazio-kanpainei eta herritarrentzako informazio-kanpainei kalterik egin gabe; plan berezi honen operatibitatearen barruan, herritarrei abisatzea lehentasunezko ekintza da. Abisu eta informazio horiek alarma mezuen eta jarraibideen bidez zabaltzen dira, eta herritarrak babesteko oinarrizko neurriak dira, benetako eta osoko informaziorik ez izateak dakarren babesik eza saihesten baita. Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzungo dieten informazio- eta jakinarazpen-prozedurak erabili behar dira; horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela bermatzeko, beti ere irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoak kontuan hartuta. Abisuak eta informazioa desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarriak eta ulergarriak izan daitezen, formatu egokiak eta beharrezko mekanismoak erabili behar dira. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.*

**Bederatzigarrena.** 6. ataleko (Salerosgai arriskutsuekin gertaturiko istripuei buruzko tokiko jarduera planak) 6.1 puntuan (Tokian tokiko jarduera planaren oinarrizko xede eta eginkizunak) azken paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

*“Antolaketan zein jarduketa-prozeduretan desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste talde batzuen beharrak kontuan hartu behar dira”.*



**Hamargarrena.** 7 ataleko (Plana ezarri eta iraunaraztea) 7.1 puntuan (Ezartzea) azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

*“Larrialdietan esku-hartzeko zerbitzuei prestakuntza ematea desgaitasuna daukaten pertsonak eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuk artatzeko, ager daitezkeen ezaugarri eta behar bereziak kontuan hartuta”.*

**Hamaikagarrena.** 7. ataleko (Plana ezarri eta iraunaraztea) 7.2.2 puntuan (Istripu itxurak) azken paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

*“Istripu itxurak egiteko egitarau honek Plana bere osotasunean edo zati batean aktibatzea eragin dezake. Ondoren, eraginkorrak izan ez diren alderdiak aldatu edo hobetuko dira. Horietan bermatu beharko da desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboentzako asistentzia egokia ematen zaiela”.*